

Huhezinema, zine jaialdi bat HUHEZIKo komunikazio ikasleek antolatua

2008/03/10

Ikus-entzunezko Komunikazioan diharduten ikasleek, 4. mailakoek, zinemaldi bat antolatu dute, Huhezinema, **maiatzaren 6tik 9ra bitartean**. Zine jaialdia **Arrasaten** egingo da, Kulturate kultura etxean, eta **Eskoriatzan**, HUHEZI fakultatean.

Huhezineman **film laburrak** erakutsiko dira, bi generotan: **fikzioa** eta **dokumentalak**, bai ikasleek egindakoak zein beste lehiakiderenak. Lanak, berriz, **hiru hizkuntzatan** onartuko dira: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. **Sariak** ere, hiru izango dira: film laburrik onena, dokumentalik onena eta euskarazko lanik onena. Hirurek 500 euro irabaziko dituzte. Horiez gain, ikusleek beste sari bat emango diote, 500 eurokoa hori ere, HUHEZIKo lanik onenari. **Lanak bidaltzeko epea** apirilaren 9an amaituko da. Argibide gehiago nahi duenak, irakur ditzala zinemaldiaren oinarriak.

Zinemaldi hau "**Ikus-entzunezko sistemen egitura**" ikasgaiaren barruan antolatu da. Horretarako, ikasleak taldetan banatu dira: komunikazio taldea, produkziokoa, etab. Komunikazio taldeak, hain zuzen, blog bat sortu du, Huhezinema, bertan zinemaldiaren jarraipena egiteko.

